

“BELDUR BARIK 2012” EKIMENAK EUSKAL GAZTERIA ELKARTUKO DU INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO URTEKO TOPAKETAN AZAROAREN 24an VITORIA-GASTEIZen

Artium Museoa 16:30etik aurrera "Beldur Barik 2012" egitarauari azken puntua jarriko dion Jaialdia hartuko du. Bertan izango dira autodefentsa- edo komiki-tailerrak, perkusioa, bertsolaritza-saioa emakume batzuen eskutik eta Ikusentzutezko III. Lehiaketaren sari-ematea.

- **Doako autobusak** jarriko dira hiru euskal hiriburuetatik, jendea ekitaldira joan eta bertatik itzuli ahal izateko. Interesa duten pertsonak lekua eska dezakete, jarrera@beldurbarik.org helbide elektronikora idatzita, **azaroaren 21a (asteazkena)** baino lehen.
- Programari buruzko informazio guztia hurrengo web orrialdean duzue: www.beldurbarik.org

Euskal Herriko ehunka neska-mutil bertaratuko dira Gasteizko hirira jarduera-programa honetan parte hartzera. Programaren helburua da sorkuntza bultzatzea eta emakumezkoek hainbat arte-esparrutan sortutako lanaren autoretza ikusaraztea eta balioztatzea.

Hala, neskei zuzendutako tailer berezituak emango dira, hala nola, autodefentsari buruzkoa, baita mixtoak ere, hala nola, "gorputza" deritzona, bideo-edizioa edo komikigintza. Jardunaldia amaituko da Ikusentzutezko III. Lehiaketaren sari-ematearekin, 20:00etatik aurrera, eta girotze aldera bertso-saioa izango da Ainhoa Agirrezaldeg, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsolarien eskutik.

Azaroak 25-Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, jai-giroko topaketa hau urterik urte euskal hiriburuetako batean ospatzen da, eta aurtengoak gazteekin landutako prebentzioa oinarri izan duen Beldur Barik! urteko programari amaiera emateko balioko du.

Beldur Barik programak garatutako jardueren emaitzak aintzatetsi eta ikusarazteko plataforma moduan balio du ekitaldiak, bai eta Euskadin Berdintasunaren alde diharduten elkarte eta kolektiboen lana aintzatetsi eta ikusarazteko ere.

Euskal gazteriarri zuzenduriko topaketa honen helburua da esperientzia, informazioa eta prestakuntza trukatzeko, eta zenbait udalerritako neska-mutikoen artean sareak sortzea ahalbidetzea.

Doako AUTOBUSAK Bilbotik eta Donostiatik

Bertaratuko direnak neska-mutiko gazteak direnez, autobusak jarriko dira gainerako euskal hiriburu bietatik Vitoria-Gasteizera, joan-etorria ahalbidetzeko.

Autobusetan lekua gordetzeko, beharrezkoa da eskaera bidaltzea jarrera@beldurbarik.org helbide elektronikora, **azaroaren 21a (asteazkena) baino lehen.**

Egitaraua

“Topaketa” 16:30ean hasiko da; autodefentsarako tailerrak, komikiak sortzeko tailerrak eta ikus-entzunezkoen tailerrak antolatuko dira, saio musikalak eta Beldur Barik Lehiaketaren sari banaketa egongo dira eta lehiaketan aurkeztutako lanak ikusi ahal izango dira.

- **Ongietorria perkusio taldearen eskutik:** Perkuneskak Emakumeon Elkarte.
- **16:30etik 19:30era. Aldi bereko tailerrak**
 - **Gorputza:** tailer mistoa; bertan, gazteek euren gorputza eta gainerakoen gorputza nola antzematen duten jorratuko da.
 - **Ikus-entzunezkoak:** tailer mistoa; bertan, bideoak sakelakoarekin nola sortu ikasiko dute. Ikus-entzunezko tresnen boterearen zenbait esperientziaren gainean hausnartuko da, besteak beste, ohartarazi, zabaldu, kritikatu, urratu eta abarrerako.

- Komikigintza: tailer misto eta esperimentalak, komiki teknikak ikasteko, Beldur Barik jarrerei buruz hausnartzen den bitartean.
- Autodefentsa: neskei soilik zuzenduriko tailerra, eraso sexistak antzeman eta horren aurrean jokatzeko.
- **19:30ean**. Luncha eta **parte-hartzaileekin batera garatutako ekintza kolektiboa**.
- **20:00etatik 22:00etara**. **Beldur Barik Lehiaketaren sari banaketa**, **Bertsolaritza-saioa** izango da Ainhoa Agirrezaldegi, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsolarien eskutik.

Topaketan bertan, **emakumeek musikan duten partaidetzari** buruzko Emarock proiektuaren erakusketa egingo da.

Beldur Barik! lehiaketa

Jaialdian Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketaren sari banaketa izango da. Lehiaketaren hirugarren edizio honetara 12 eta 26 urte bitarteko gazteek egindako **131 bideo** aurkeztu dira, banaka edota taldeka egindakoak. Guztira, 76 lan lehen kategoriarik dagozkio (12-17 urte), eta 55, bigarren kategoriarik (18-26 urte)

Beldur Barik! programa euskal gazteria sentsibilizatzeko eta sustatzeko programa da, bai eta indarkeriaren nahiz jarrera sexisten kontrako jardura aktiboa sustatzeko ere. Beldur Barik! programa EUDELe koordinatzen du, eta honako erakundeek bultzatzen dute: Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren kontrako Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak. Halaber, kanpaina honetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta EITB komunikazio taldeak ere hartu dute parte.

***Beldur Barik programako komunikazio-kanal ofizialak:**

www.beldurbarik.org webgunea eta Facebook, Twitter zein Tuentiko profilak.